

# Euskal Herriko laborantza gida 1.0

2005eko uztaila

# BIBLIOGRAFIA SARRERA

**SUSTATZAILEA:**



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia  
Observatorio para el desarrollo socio-económico de Euskal Herria  
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque

**EGILEA:**



OHARRA:

Lan honek Laborantzako dosierrak ([www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)) eskaintzen dituen beste bi lani sarrera egiten die:

- 1.- Laborantzako bibliografia zerrenda
- 2.- Laborantza. 56 erreferentzia nagusi

## BIBLIOGRAFIA

### NEKAZARITZARI BURUZKO MILAKA ERREFERENTZIA LIBURUTEGIETAN, 905 GURE GIDA HONETAN

Eusko Jaurlaritzako, EHUko, NUPEko, Nafarroako Gobernuko eta Baionako Udal Liburutegiko gida-zerrendak aztertuz gero, nekazaritzaren inguruko erreferentzia bibliografiko asko aurki ditzakegu. Adibide gisa esan dezagun Baionako liburutegian *agriculture* hitza idatziz 271 erreferentzia ateratzen zitzaizkigula, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko Liburutegian *agricultura* hitza idatziz 7.222 eta EHUkoan 1.876.

Erreferentzia horiek guztiak jasotzea ezinezkoa zitzaigun, eta horien artean hautua egin beharrean izan gara. Horretarako, bost liburutegi horien gida-zerrendak aztertu ditugu, eta adituen gomendio eta proposamenak kontuan izanda egin dugu aukera.

Horrez gain, liburutegi horietan azaldu ez arren funtsezkoak izan daitezkeen beste liburu eta ikerlan batzuekin aberastu dugu gure zerrenda. Azkenean, 905 liburu, artikulua eta ikerlanen erreferentziak bildu ditugu Gidaren 1.0 bertsio honetan. Liburuek, aldizkariak, aldizkarietako artikuluek, eragile eta adituek emandako lan espezifikoak eta administrazioak ateratzen dituen aldizkako argitalpenek osatzen dituzte 905 erreferentzia horiek. Bada hor nahiko lehengairik Euskal Herriko nekazaritza zertan den ezagutzen hasteko.

Zerrenda hori ahalik eta operatiboena izan dadin, zerrendarekin batera materialak non dauden ere adierazi dugu. Hau da, erreferentzia bibliografiko bakoitza zein liburutegitan aurki daitezkeen eta zein den bere signatura.

### EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZAREN EZAGUTZAN SAKONTZEKO FUNTSEZKO 55 ERREFERENTZIA, ETA HORIEN SAILKAPENA

Milaka dira liburutegietan aurkitu ditugun erreferentziak. Horietatik guztietatik 905 ekarri ditugu Gidara. Hala ere, aukeratu ditugun horien artean funtsezkoenak hautatzea beharrezkoa iruditu zaigu. 905 erreferentzia izatea oso aberasgarria da, baina hainbeste baliabide eskura izanda, gerta daiteke nora jo ezin asmatu ibiltzea ere. Ondorioz, erreferentzia horien guztien artean ez galtzeko, erreferentzia nagusienak zein diren zehaztea erabaki dugu. Adituen ekarpenetan eta gure irizpideetan oinarritu gara horretarako.

Aukera horren emaitza jarraian datorren taulan jaso dugu. Taula horretan, liburuaren oinarritzko erreferentzia ez ezik, baliagarria izan daitezkeen informazio osagarria ere aurkeztu dugu:

- Liburu, ikerketa edo bestelako materialen izaeraren araberako sailkapena. Honela sailkatu ditugu:
- Nekazaritza zentsuen emaitzen argitalpenak (24 erreferentzia). Funtsezko lanak dira, nekazaritzako eragile eta adituen iritziz. Ezinbesteko erreferentziak.

- Nekazaritzari buruzko (beste) lan orokorrak (18 erreferentzia): nekazaritza zentsuez gain, bestelako ikerlan orokorrak hemen sailkatu ditugu, hala nola, nekazaritzako makromagnitudeak, nekazaritzako elikagai industrien ingurukoak eta abar. Horietako gehienak ere administrazioak eginak dira. Hemen sailkatu ditugu, adibidez, Euskal Herriko Garapen Kontseiluaren *L'agriculture en Pays Basque* lana, Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Eusko Jaurlaritzak argitaratzen dituen *Macromagnitudes agrarias*, *Ikusmiran* eta *Balanza Comercial Agroalimentaria* edo Nafarroako Gobernuaren *Navarra Agraria* eta *Coyuntura Agraria*.
- Azterketa espezifikoak, nekazaritzaren alor zehatz bati buruzkoak (5 erreferentzia). Gai zehatzagoak jorrotzen dituzten ikerketak dira horiek. Adibidez: *Gazteak Euskal Nekazal Sektorean*, *Emakumeak Euskal Landa Eremuan*, *Sasoiko Lanaren arretarako Plan Integrala 2004-2007*, edo *Situación de la población temporera en Alava: condiciones de trabajo temporero en las campañas de vendimia y recolección de patata*.
- Administrazioaren planak (4 erreferentzia): Nafarroarako Nekazaritza Plana, EAErako Nekazaritza Plana...
- Nekazaritza gai zabalagoen artean lantzen duten lanak (5 erreferentzia). Argitalpen horiek ez dira nekazaritzaz soilik mintzo, baina nekazaritzari buruzko atal interesgarriak dituzte. Adibidez, *Euskal Herria datuen talaiatik* eta Euskadiko Kutzak urtero argitaratzen duen *Economía Vasca* txostena.
- Egile, editore edo/eta sustatzailearen izaeraren arabera. Honela sailkatu ditugu:
- Administrazioak edo horren atalen batek (estatistika institutuak gehienetan) argitaratuak (46 erreferentzia).
- Nekazaritzan diharduten eragileek egindako lanak (2 erreferentzia). Hemen sailkatu ditugu, EHNE Sindikatuak 2002. urtean egindako *Análisis de la evolución del sector agrario de Bizkaia en los últimos años*, eta ELB sindikatuak 2004. urtean egindako *Agriculture du Pays Basque: Etat des lieux et perspectives* ikerketa. Erreferentzia garrantzitsuak dira bakoitza bere eremuan.
- Bestelakoak (8 erreferentzia). Gainerako guztiek (ikerlari, aurrezki kutxa...) egindako lanak.
- Hizkuntzaren ikuspegitik, ikerketa batzuk euskaraz idatziak daude, beste batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk frantsesez. Ikerketa horietako batzuk bi hizkuntzatan idatziak daude. Aurkezten ditugun 56 lanetatik 19 irakur daitezke euskaraz, 10 frantsesez eta 43 gaztelaniaz.
- Halaber, ikerketa horiek zein eremu geografiko jorrotzen duten adierazten da. Aipagarria gertatzen da Euskal Herria bere horretan aztertzen duten lanak bi besterik ez izatea: *Euskal Herria datuen talaiatik* eta *Euskal Herriko ardoak*. Ez bata ez bestea ezin dira Euskal Herriko nekazaritzari buruzko lantzat hartu: lehenengoan, nekazaritzarena atal bat besterik ez da; *Euskal Herriko ardoak* liburuak, berriz, oso gai zehatza jorrotzen du, izenburuak adierazten duen bezala. Ez dugu aurkitu, beraz, Euskal Herriko nekazaritza bere horretan eta gutxieneko sakontasunez aztertuko duen lanik. "Euskal Herriko Laborantza zentsuen bateratzea. Azterketa estatistikoa 2006" izeneko txostena, beraz, aitzindaria izango da ziurrenik Euskal Herriko nekazaritzaren inguruko ikerketan.

Salbuespenak salbuespen, Euskal Herriaren banaketa politiko eta administratiboaren arabekoak dira eskuratu ditugun ia ikerlan guztiak. Lapurdi, Nafarroa Behere eta Zuberoari buruzko ikerketa gutxi ditugu oso, ez baitute inolako aitortza instituzionalik; liburu eta txosten bakan batzuk besterik ez. Horrez gain, Gida honekin batera aurkezten den bibliografiaren gida-zerrendan aldizkari batzuetako artikuluak ere erreferentzia gisa gehitu ditugu.